



KIRUN-KARUN PEK

Testuak: Jon Suarez

Ilustrazioak: Mariñe Arbeo eta Malen Amenabar
(Txakur Gorria)

Aho korapiloek, herri kantek, zotz egiteko formulek eta hitz jokoek ahozko literaturaren errepertorioa osatzen dute. Liburu eder honek horien oihartzuna dakarten 84 testu labur biltzen ditu, haiku itxurakoak, ilustrazio goxoz eta iradokitzailez jantziak, jolasa beste helbururik gabe.

JON SUAREZ (Elgoibar, 1962)

Maisu ikasketak egin zituen. Idazle bezala, haur literatura landu du batez ere. Haur eta gazteei zuzendutako hamarnaka liburu itzuli ditu euskarara. Irakasle lanetan dihardu Gasteizen.

MARIÑE ARBEO ASTIGARRAGA

(Zumarraga, 1992)

Gaztetatik aritu da diseinu eta ilustrazio lanetan. Arte Ederretako sorkuntza eta diseinuan graduatua da (EHU), eta argitalpenen diseinuan eta ekoizpenean goi teknikaria. Txakur Gorria sormen kolektiboan garatu du bere jarduna, eta hamar liburu argitaratu ditu taldean, beste hainbat lan grafiko gain. *Totototo* liburu ilustratuaren egilea da Ane Labaka Mayozeekin batera (Elkar, 2021).

MALEN AMENABAR LARRAÑAGA

(Larrabetzu, 1994)

Arte ederretan graduatua da (EHU), eta batez ere ilustrazioa, kartelgintza eta animazioa landu ditu, proiektu indibidual zein kolektiboen bidez. Besteak beste, Txakur Gorria sormen kolektiboaren sortzailea eta partaidea da gaur egun.

HAUR LITERATURA

ISBN: **978-84-19319-26-5**
ORRIALDEAK: **52**
FORMATUA: **150 x 220 mm**
PREZIOA: **17,00 €**

2 urtetik aurrera

Nabarmentzekoak:

- Ahozkotasun handiko haiku itxurako testu laburrak sortu ditu Jon Suarezek, aho korapiloak, zotz egiteko formulak eta hitz jokoak gogorarazten dituztenak.
- Mariñe Arbeo eta Malen Amenabar ilustratzaileek, Txakur Gorria kolektiboko kide ere badirenek, goxotasun eta adierazkortasun handiko ilustrazioak egin dituzte, hala detaile sotil nola orrialde bikoitzekoak.
- Sei atal hauetan banatua dago liburua: Kantu kantari; zotz eta jolas; zenbat?; letra zopa; saski-naski; kontu kontari. Guztira, 84 jolas.

Hitzak irudi,
bi-biak jolas.
Atea zabal, zuri.



+XO!

txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus